

M17 GREBA OROKORRA

GORA LANGILEON BORROKA!

BIGARREN HEZKUNTZA
IKAS-MATERIALA



Gutxieneko soldata hemen erabaki
SMI 1.500€

Soldatak hobetu, aberastasuna banatzeko

I.AB⁷
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA



IKAS-MATERIALA BIGARREN HEZKUNTZA

IKASLEEKIN GREBA LANTZEKO

Hemen behekoa **power point** gisako aurkezpenaren **gidoia da**. Edozein irakaslek **DBH 1eko Tutoretza saio batean egiteko pentsatua dago**: talde handian galdera-erantzun bidez bideratzeko saio zuzen eta erraza, oinarrizko kontzeptuak azaltzeko helburuarekin. Nahi izanez gero, aurkezpenik gabe ere egin daiteke, deialdiaren kartel soilarekin. Hasieran irakasleak oinarrizko galderak botako baditu ere, ziur berehala ikasleak izango direla galdera berriak egingo dituztenak. Horretarako ere, **prestatu zure burua!**

Jarraian dituzuen zenbakiak, power point gisako aurkezpeneko diapositibak lirateke:



M17

- Norbaitek ba al daki zer esan nahi duen “**M17**”? Martxoak 17.
- Norbaitek ba la daki **zer gertatuko den martxoaren 17an?**



M17 Greba Orokorra

- Norbaitek ba al daki zer esan nahi duen **Greba Orokorra**-k?
 - **Greba**: langile talde batek egiten duen lanuztea.
 - **Greba orokorra**: lan-jarduera eta sektore ekonomiko guztietan egiten den greba eta protesta bat da, ia beti egun bakar batean zehar.



Kartel osoa

- **Kartel osoa ikusita, bi galdera erantzun ditzakegu**:
 - **Zergatik** deitzen da? **Gutxieneko soldata hemen erabaki**-tzeko
 - **Nork deitzen du?** ELA / LAB / Steilas / Etxalde / HIRU



Sindikatuak

- Norbaitek ezagutzen al ditu bi sigla edo akronimo hauek? Zer esan nahi duten?
 - **LAB**: Langile Abertzaleen Batzordeak
 - **ELA**: Eusko Langileen Alkartasuna
- Talde batzuen izenak dira. Zein talde mota dira?
 - Biek **LANGILE** hitza daramate izenean.
 - Langile-taldeak izango dira, langile antolatuak: **sindikatuak**.
 - Bi hauek sindikatu orokorrak dira, edozein eremutan dihardutenak, besteak alor zehatz batekoak dira:
 - **Steilas**: irakaskuntza
 - **Etxalde**: baserritarrak.
 - **HIRU**: garraiolariak.
- Sindikatu hauek guztiek eremu geografiko antzekoa dute.
 - Zein da? Goierri / Gipuzkoa / Espainia? Euskadi/Euskal Herria

5

Sindikatuak [2]

- **Euskal Wikipediaren** arabera definizioa.

6

Kartel osoa

- Beraz, **5 euskal sindikatu** hauek **greba orokorra deitu** dute martxoaren 17rako.
- **Zergatik** deitzen da? **Gutxieneko soldata hemen erabaki**-tzeko.

7

Gutxieneko soldata

- **Zer da?** Ikusgelak bideo bat egin zuen “Gutxieneko soldata, eta gehienezkoa?” gaiaren inguruan.
- **Lehen zatia ikusiko** dugu, 2. minutura arte (egin klik **irudian** bideoa ikusteko).
- Zer da **gutxieneko soldata** edo **Lanbidearteko Gutxieneko Soldata** [LGS]? Pertsona batek lanaldi osoan lan egiteagatik jasoko lukeen gutxieneko soldata. Hau da, gutxienez soldata hori jasoko du.
- **Herrialde askotan legez erregulatzen da. Euskal Herrian?** Bai, espainiar eta frantziar estatuek (gobernuek) erregulatzen dute.
- **Zer gertatzen da gutxieneko soldata hori baxua bada?** Soldata baxua bada, ez ditu pertsona baten oinarritzko beharrak asetzen.

8

SMI

- Kartelean **“Gutxieneko soldata Hemen erabaki”** esaten du eta behean zifra bat dator. Zenbat? **1.500**
- Baina aldamenean **SMI** du? **Zer esan nahi du?** Gazteleraz da. Soldata nola da gazteleraz? Salario. Gutxieneko? Minimo. Lanbidearteko? Interprofesional.
- Euskaraz, **Lanbidearteko Gutxieneko Soldata** [LGS] = Salario Mínimo Interprofesional [SMI].
- Beraz, **hemen erabaki** eta **1.500 eurotan** jartzeko aldarrikatzen dute.

9

Espainiar edo frantziar estatua

- Gutxieneko Soldata herrialde askotan **legez** erregulatzen da eta aldatzen joaten da, **ustez**, bizitzeko beharrezkoak diren gauzen prezioa igotzen den heinean: janaria, etxebizitza, energia...
- **Bi hauetatik zein da Euskal Herriko gutxieneko soldata?** Biak, bata Iparraldean, bestea Hegoaldean.
- **[Portzierto, bideoa duela 2 urtekoa da. 2026ko LGSa 1.221 eurokoa da]**

10

Espainiar edo frantziar estatua

- Hegoaldea eta Iparraldea.

11

Hemen erabaki

- Beraz, bost sindikatu hauek **HEMEN** erabaki diotenean, **zein eremuri egingo diote erreferentzia?** Hego Euskal Herriari, Iparraldean duten gutxieneko soldata altuagoa baita. Hegoaldekoa igo nahi dute.
- **Hegoaldean nork du arautua gutxieneko soldata hori?** Frantziar edo espainiar estatuak? Espainiar Estatuak (Gobernuak).

12

Hemen erabaki

- **Hemen erabaki:** 1.500 euro.

13

Batez besteko soldata altua Hego Euskal Herrian

- Hemengo hauek espainiar estatuko erkidego bakoitzeko **soldaten batez besteko gordinak** dira. Mapan ikus dezakegunez, erkidegoen arteko **diferentziak handiak** dira.

- **Azaldu nahi bada...**

- Hauek batez bestekoak dira: soldata guztiak batu eta soldata horiek jasotzen dituzten langile-kopuruaren artean zatitzen da. Beraz, hor, batzuek soldata altuak eta besteek baxuak badituzte ere, horien batez bestekoa aterako da.
- Demagun:
 - Desberdintasunak dituen herrialde batean:
 - A langileak: 1.000 euro
 - B langileak: 3.000 euro
 - Batez bestekoa: $(1.000 + 3.000) / 2 = 2.000$
 - Berdinzalea den herrialde batean:
 - A langileak: 2.000 euro
 - B langileak: 2.000 euro
 - Batez bestekoa: $(2.000 + 2.000) / 2 = 2.000$
 - Muturreko desberdintasunak dituen herrialde batean:
 - A langileak: 500 euro
 - B langileak: 3.500 euro
 - Batez bestekoa: $(500 + 3.500) / 2 = 2.000$
- Batez bestekoak hori baino ez dira, batez bestekoak.

- Bere horretan, soldataren zifrak ez du gehiegi esan nahi. Hau da, 1.000 euroko soldata izanda, oso ondo bizi nintke eta nire behar guztiak (jana, etxebizitza, ura, energia, garraioa, osasuna, hezkuntza...) asetuta izan herrialde batean, eta kontrara, beste batean, gutxieneko beharrak asetzeko aukerarik ez izan. Norbaitek badaki zergatik? Ondasun eta zerbitzu horien prezioengatik. Hau da, bizi-baldintzengatik.
- Europako Karta Sozialak irizpide bat du: lurralde bateko gutxieneko soldata batez besteko soldataren % 60 izan behar du. Europako Karta Sozialaren datua erreferentzia gisa hartu dute sindikatuak, eta patronalarekin negoziatzeko ahalbidetzeko zifra bat adostu dute euren artean: 2026 urtean Hego Euskal Herriko gutxieneko soldata 1.500 eurokoa izatea, eta ez, espainiar estatukoaren batez bestekoaren arabera.

14

Kartel osoa

- Goazen **kartelean agertzen den azken esaldia** aztertzeraz:
- Nola itzuliko zenukete? Soldatak hobetu aberastasuna banatzeko?
- **Zer esan nahi du?**

15

Eskuorria

- Hau Herrietako Greba Batzordeetan erabiltzeko materiala da.
- Bertan, itzulpen hori egin dute: **SOLDATAK HOBETU ABERASTASUNA BANATZEKO**

16

Aberastasunaren banaketa

- Beraz, sindikatuek eskatzen dutena da **langile guztiok gutxieneko soldatatik gora irabazi ahal izatea**.

- **Azaldu nahi bada...**
- Aberastasunak adiera desberdinak baditu ere (esperientzietan aberatsa, biodibertsitate aberatsa...), kasu honetan, bereziki **diruari egiten dio erreferentzia**.
- Aberastasuna modu desberdinetan **“sor”** daiteke. Nagusienak bi dira:
 - Lanaren bidez.
 - Espekulazioaren bidez (ondasunak erosi-salduz diru gehiago lortzeko helburuarekin egiten dena), batzuek “inbertsio” gisa definitzen dutena.
- Eta aberastasuna modu desberdinetan **banat** daiteke. Nagusienak:
 - **Soldaten** bidez.
 - **Plusbaliaren** bidez (enpresaburuek langileen lanetik ateratzen dutena)
 - **Gobernuaren bidez**. Azken honetan, ezagunenak diru-laguntzak badira ere, askoz diru gehiago banatzen da **esleipenen** bidez: adibidez, AHTa egiterakoan eraikuntza-enpresei ordaintzen zaiena; edota osasunerako zerbitzu batzuk enpresa pribatuei ordaintzen zaizkienean.
- Baina buelta gaitezen **soldatetara**. Hori da langileok lana egiteagatik jasotzen duguna. Baina lan guztia da soldatapekoa? Ez.
 - **Etxeko lanak** (sukaldean aritu, etxea eta erropa garbitu, aiton-amonak edo haurrak zaindu...). Batzuetan ordaintzen dira (kanpoko norbaitek egiten dituenen), gehienetan ez.
 - **Soldatarik gabe** puntualki zenbait jende egiten dituen zenbait lan: azokan merkantziak kargatu, haurrak puntualki zaindu, tabernan ordu batzuk lan egin... Momentuan bertan eta soldatarik gabe ordaintzen dira, paperik egin gabe.
 - Zenbait lan nahiz eta soldatapeko izan (hau da, soldata jaso), **ez du kontraturik** izaten, ez da paperik egiten eta, beraz, gaixo jarritz gero, lana bukatuz gero, ordainsaririk eta erretretarik ez dute jasoko. Askoz ere eskubide gutxiago izango dituzte, soldata ordaintzen duenak erabakitakoak baino ez.
- Baina... buelta gaitezen **soldatetara**.
 - Lana egiteagatik kontratu baten bidez soldata bat jasotzen dutenek bermatuta dute gutxieneko soldata bat jasoko dutela.
 - Baina, **Euskal Herriko sindikatuek** (eta Europako Karta Sozialak) **diote, espainiar estatuan dagoen gutxieneko soldata ez dela nahikoa Hego Euskal Herrian duintasunez bizi ahal izateko, hau da, beharrezkoak ditugun gauzak erosi ahal izateko**.
 - Zuen ustez zein elementu izango da gaur egun gehien balio duena edo diru gehien eskatzen duena bizi ahal izateko? Etxebizitza

17

Greba orokorra elkartasunagatik

- Hego Euskal Herriko batez besteko soldata 1.500 euro baino askoz altuagoa bada, zergatik deitzen da Greba Orokorra? Hau da, zergatik egiten zaie deialdia langile guztiei? Sektore guztietan eta lantegi/lantoki guztietan? **Elkartasunagatik**.
- **Norekin da elkartasun hori?** Zein langilek kobratzen du Hego Euskal Herrian 1.500 euro horietatik behera?
- **(Hurrengo datuak Ipar Hegoa Fundazioak eginiko txostenetik atereak dira)**

18 % zenbat?

- % zenbat esango zenukete?

19 % 21,55

- Gutxi gorabehera, Hego Euskal Herrian, **5 langiletatik 1ek** 1.500 euroko langatik behera kobratzen du. **240.000 euskal langile.**

20 2/3?

- Langile horien artean, **2/3** zer dira, zuen ustez, **emakumeak ala gizonak?** Nortzuk dituzte soldata baxuagoak? **Emakumeek.**

21 2/3 emakumeak

- Emakumeak.

- Azaldu nahi bada...
- Genero arrakala soldatetan **Hego Euskal Herrian % 19,3koa da orain.**

22 1/3 gazteak

- **30 urtetik beherakoak.**
- **Eta erdia?** Langile horien erdiak zer ote dira? Zein izan daiteke hirugarren kolektibo zaugarriena? Lan-munduan noren aurka egiten du eskuinak, adibidez? Nork kentzen omen digu lana?

23 1/2 migranteak

- **Hemen jaio ez ziren 119.000 pertsona** daude lanean **1.500 euroko soldata-langaren azpitik** kobratzen.

24 Martxoaren 17an Greba Orokorra

- **Martxoaren 17an Greba Orokorra dugu.** Langileok sortzen dugun aberastasuna modu justuagoan banatzea nahi dugulako. 240.000 langile horiek soldata duina merezi dutelako.
- Hori **ez da langileon aldarrikapen bakarra**, baina Euskal Herriko gehiengo sindikala aldarrikapen honen bueltan batu da.
- Greba Orokorra **negoziazioek huts egiten dutenean erabiltzen da:**
 - Sindikatuak patronalarekin esertzen saiatu dira: Confebask (Euskadi) eta CENekin (Nafarroa). Ez dute ezer jakin nahi izan.
 - Euskadi eta Nafarroako Parlamentuetara ere eraman dute proposamena Espainiako Gobernuari legea alda dezan eskatzeko, baina gobernuan dauden alderdiek entzungor egin diete.
- Negoziazioak huts egiten dutenean, **langileak kalera deitzen dituzte sindikatuek.**

• Azaldu nahi bada...

- **Berriaren** "Berriketan" podcastean **Greba orokorra ortzi mugan** saioan oso ondo azaltzen da sindikatuak egin duten ibilbidea. Irakasle zaharxeagoentzat egokia.



Denbora gehiago izanez gero: landu daitezkeenak

- **Ikastetxean** nola egiten diren **bozketak**.
- **Greba ez egiteko egon daitezkeen 3 arrazoi nagusiak:**
 - Ez bat egitea
 - Dirua
 - Ondorioak. Irakasleok ez, baina, hain justu, baliteke 1.500 euroko soldataren azpitik daudenek izatea zailtasun gehien.
- **Greba Orokorrak Euskal Herrian** [historikoa].
- **Euskal Herriko sindikatuak** vs. **Espainiakoak**
- **Aberastasunaren banaketa** gero eta injustuagoa.
- **Elkartasun-ariketa** edo etorkizunean izango dugunaren ispilua?